

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

## 3115

*EBAZPENA, 2024ko ekainaren 19koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearena, non argitaratzen baita Mikel Egaña Aranguren jaunak gainditu egin duela 2023ko abenduaren 1eko Ebazpenak (2023ko abenduaren 19ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria) dei egindako hautapen prozesua, «Hizkuntza eta Sistema Informatikoak» jakintza arloan Irakasle Agregatu plaza bat betetzeko.*

Errektore honek ebatzi du Mikel Egaña Aranguren jauna Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasle Agregatu gisa kontrata dadila. NAN zk.: \*\*\*6895\*\*. Kodea: AGC8L1 – D00141-37. Jakintza arloa: Hizkuntza eta Sistema Informatikoak. Saila: Lengoia eta Sistema Informatikoak. Ikastegia: Bilboko Ingeniaritza Eskola. Hizkuntz eskakizuna: elebiduna. Arduraldia: osoa. Egin beharreko irakaslanak eta ikerlanak: «Informazio Sistemen Segurtasuna Kudeatzeko Sistemak».

Proposatutako lehiakideak 20 lanegunen epea izango du, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta bigarren egunetik hasita, dagokion lan kontratuaren formalizazio guztiak gauzatzeko.

Leioa, 2024ko ekainaren 19a.

Errektorea.

Eskumenak eskuordetuta (Ebazpena, 2021eko urtarrilaren 28koa, errektorearena, 2021-02-12ko EHAA)

Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea,  
FEDERICO RECART BARAÑANO.